

PRENTSA OHARRA

BILBOKO UDAL MUSIKA BANDAK AREATZAKO KIOSKOTIK ZABALGUNEKO ERAIKINERA PASATZEN DU UDABERIKO KONTZERTUEN ZIKLOA

- Areatzan egingo diren lanak direla eta, Zabalguneako Merkaturia izandako eraikinean eskainiko ditu kontzertuak maiatzeko eta ekaineko ostiraletan, 19:30etan eta doako sarrerarekin
- Udaberriko denboraldiari maiatzak 7 OSTIRALEAN emango zaio hasiera Iñaki Urkizu Zuzendari Titularrak zuzendutako eta bossa novari eskainitako kontzertuarekin

Bilbon, 2010eko maiatzaren 4an. Euskalduna Jauregian udazken–neguko denboraldiko kontzertu zikloak izandako arrakastaren ondoren, Bilboko Udal Musika Bandak datorren ostiralean hilak 7an, udaberriko denboraldiari emango dio hasiera eta bere **ikuskizunak Zabalguneako Eraikinean (Merkatu ohia)** emango ditu Areatzako kioskoarekin ordezkatuz, Bilboko erdiguneako pasealekuan egingo dituzten lanak direla eta. Inaugurazio kontzertua **19:30etan** hasiko da eta **Iñaki Urkizu** zuzendariordea arituko da Bandaren zuzendaritza lanetan. Kontzertu ziklo honetan zehar, Iñaki Urkizu eta Rafael Sanz-Espert zuzendari titularra ordezkatuko dira Bandaren zuzendaritzan.

Lehenengo kontzertu honen egitaraua bi ataletan banatzen da. Lehenengoa, **Johan Halvorsen** norbegiarraren 'La marcha de entrada de los boyardos' obrarekin hasiko da eta ondoren, **Emilio Cebrián** toledarraren 'Acuarelas Campesinas' eta **Gilbert Vinter** britainiarraren 'Vizcaya' entzun ahal izango dira.

Bigarrenean, **Alberto Ginastera** argentinarraren 'Estancia' *malamboaren* azkenengo zatia interpretatuko du Bandak. Ondoren omenaldi txiki bat eskainiko dio Brasildar Bossa Novaren aitari, Antonio **Carlos Jobim**, bere 'Samba de una nota', 'Meditación', 'Insensatez' eta 'Chica de Ipanema' ezagunak interpretatuz. Amaiera ezin hobe emango dio Bandak Zabalguneako bere lehen kontzertuari, **Philip Sparke** britainiarraren 'Retrato de una ciudad' obra interpretatuz. Eraikin honen edukiera 450 pertsonena da, hauetariko 300, eserita.

Iñaki Urkizu Kerejeta (Beasain, 1961) zortzi urterekin hasi zen tronpeta jotzen etxeko ohitura jarraituz eta Donostiako kontserbatorioan bere ikasketak burutzen ari zen bitartean, banda ezberdinekin interpretatu zuen musika tresna hau. Ondoren, zenbait musika eskoletako irakasle izan da, Ertzaintzaren Musika Banda zuzendu du, (tronpeta bakarlaria izan dena) eta zenbait bandetako kolaboratzailea izan da, – Bilboko Orkestra Sinfonikoa edo gipuzkoar hiriburuko Konjunto Barrokoa, Araba Brass Taldea eta Gasteizko Big Band beste- eta moldaketa, transkribatzaile eta musika bildumagile lanetan bere ibilbidea landu duena da. Gainera, 700 kontzertu baino gehiago zuzendu ditu eta zenbait diskoren grabaketetan parte hartu du.

Udal banda datorren ostiralean maiatzaren 14an itzuliko da Zabalguneako Eraikinerari eta ekainean zehar hilaren 4an, 11n eta 18an ere luzatuko da udaberriko kontzertu zikloa. Maiatzeko egutegia beste bi emankizunekin osatzen da gainera, Buia auzoan larunbata hilaren 15ean eta Musikasten, Erreterriako musika astean hilaren 22 larunbatean ere.

Bilboko Udal Musika Banda BILBAOMUSIKA Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailaren menpeko organismo autonomoaren ardurapean dago, Musika Eskola eta Txistularien Banda bezala.

BILBOKO UDAL MUSIKA BANDAREN UDABERRIKO KONTZERTU DENBORALDIAREN EGITARUA

Maiatza:

- ostirala 7: (Zuzendaritza: Iñaki Urkizu) Zabalgune Eraikina. 19:30etan
- ostirala 14: (Zuzendari titularra: Rafael Sanz-Espert) Zabalgune Eraikina. 19:30etan
- larunbata 15: Buia Auzoan 12:00etan kontzertua.
- larunbata 22: MUSIKASTEEn kontzertua, Errenteriako Andra Mari de Abesbatzarekin. Zuzendariak: José Manuel Tife (Abesbatza) eta Iñaki Urkizu (Banda). Errenterian. 20:30etan.
- ostirala 28: 19:30etan. Pergola

Ekaina

- Ostirala hilaren 4, 11 eta 18: (Zuzendaritza: Iñaki Urkizu eta Rafael Sanz-Espert), 19:30etatik aurrera Zabalguneko Eraikinean (Edukiera bete arte sarrera libre))

INAUGURAZIO KONTZERTUKO EGITARUA

Lekua: Zebalguneko Eraikina

Eguna: maiatzak 7, ostirala

Ordua: 19:30etan

Sarrera libre edukiera bete arte

LEHENENGO ATALA

-'Marcha de entrada de los boyardos'. OP. 17, J. Halvorsen, F.Fennell-en moldaketak

-'Acuarelas campesinas', E. Cebrían

1. 'Crepúsculo'
2. 'Romería'
3. 'Las vendimiadoras'
4. 'Boda en la aldea' eta Azkena

-'Vizcaya', G. Vinter *K. Lamb-en* moldaketak

BIGARREN ATALA

- 'Estancia' obraren azkenengo dantza, A. Ginastera

- 'Las chicas de Jobim', Jobim-i omenaldia, M. Schneiderren moldaketak

1. 'Samba de una nota'
2. Meditación
3. Insensatez
4. La chica de Ipanema

-'Retrato de una ciudad', P. Sparke

1. 'Skyline'
2. 'En otoño'
3. 'Downtown'

Informazio gehiago:

PRENTSA-BULEGOA: L&V COMUNICACIÓN – Itziar Villamandos

Kale Nagusia, 81 – 3. solairua, 9. saila, 48011 BILBO

Tel. 94 416 08 00 -Faxa: 94 439 30 56

Eskukoa: 657 796 583

villamandos@lvcomunicacion.com